

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren IX Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren IX. Edizioaren —2021/2022 ikasturtea— Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 22 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauetara ematea erabaki du:

Euskaraz:

**EMAKUMEAREN DEKLARATZEKO BETEBEHARRAREN DISPENSA
GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN**

Gaztelaniaz:

**VIOLENCIA SEXUAL EN ESPACIOS DE OCIO NOCTURNO: UNA PROPUESTA
DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2023ko otsailaren 17a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-ix-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren irabazlea:

Enara Tapia Larrakoetxea

Zuzenbide gradua (Zuzenbide Fakultatea)

Tutorea: Goizeder Otazua Zabala

EMAKUMEAREN DEKLARATZEKO BETEBEHARRAREN DISPENTSA GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN

LABURPENA:

Lan honetan zehar aztertuko duguna izango da zigor prozesuaren eremuan eztabaidagai izan den eta oraindik ere baden tresna bat. Zehazki, Prozedura Kriminalaren Legeko (aurrerantzean PKL) 416.1.artikuluaren deklaratzeko betebeharraren dispentsari buruz ari gara, genero-indarkeriaren eremuan. Aipatutako artikuluak pertsona jakin batzuei aitortzen die akusatuaren aurka ez deklaratzeko eskubidea, akusatuarekiko ahaidetasuna edo afektibitatea dela eta. Eredu subjektibo horren barruan, generoindarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute bere erasotzailearen aurka ez deklaratzeko. Hori dela eta, hainbat arazo sortu izan dira dispentsaren erregimena interpretatzeko eta aplikatzeko orduan. Izan ere, genero-indarkeriaren eremuan, emakumea izan ohi da gertakariaren lekuko bakarra, normalean intimitatean gertatzen diren delituak direlako. Beraz, emakumearen deklarazioa funtsezkoa da; are gehiago, emakumeak dispentsari heltzeak erasotzailearen absoluzioa eragiten du kasu askotan, froga faltagatik.

PKLko jatorrizko idazketa egin zenetik, PKLko 416.1.artikuluaren dispentsa gai gatazkatsua izan da. Hasieran, dispentsaren erregimena oso zabala zen, mugarik eta salbuespenik gabe erabil zitekeelarik. Hori dela eta, urteetan zehar hura aldatzeko erreforma-proposamenak egon dira. Ildo horretatik, uztailearen 10ko Auzitegi Gorenaren 389/2020 Epaiak genero-indarkeriaren eremuan dispentsa mantentzeko buruzko eztabaida piztu zuen, lan honetan zehar aztertuko dugun bezala. Azkenik, haurrak eta nerabeak osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren (aurrerantzean LO) bidez, PKLko 416.1.artikuluaren erreforma iritsi da, dispentsaren mugak ezarriz, adingabeak eta mendekoak diren desgaituak babesteko modu gisa. Hala ere, dispentsaren erabileraren inguruko hutsuneak daude oraindik.

Azaldutako guztiagatik, gure ikerketa-lana genero-indarkeriaren eremuan deklaratzeko betebeharraren dispentsan oinarrituko dugu. Lan honetan zehar, dispentsaren erregimena eta eboluzioa aztertuko dugu sakonki, iritzi jurisprudentzialetan eta doktrinaletan murgilduz, tresna prozesal honek genero-indarkeria arloan dakartzan arazoak ulertzeko eta horiei konponbidea emateko.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Maria Lopez Morales

Gizarte Hezkuntzako gradua (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea)

Tutorea: Amaia Agirre Miguelez

VIOLENCIA SEXUAL EN ESPACIOS DE OCIO NOCTURNO: UNA PROPUESTA DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA

LABURPENA:

La violencia sexual es una de las manifestaciones de violencia contra las mujeres que se enmarcan y mantienen dentro del sistema patriarcal (ONU, 1993). Es una de las formas más habituales de violencia ejercida contra las mujeres. Este trabajo recogerá mediante una investigación mixta las vivencias personales de hombres y mujeres jóvenes en los espacios de ocio nocturno, centrandó la atención en discotecas, pues en este contexto existe mayor tolerancia a unas conductas que no tendrían cabida en otros espacios, convirtiéndolos en uno de los lugares más permisivos hacia la violencia sexual (Graham et al., 2010 y FSyC, 2016).

Este trabajo tiene como objetivo conocer en profundidad la problemática y aportar una solución desde el ámbito socioeducativo. Como resultado final se planteará un diseño de intervención socioeducativa para dar respuesta al problema, con el fin de formar y sensibilizar al personal de cuatro de las discotecas más concurridas de Donostia. Los principales resultados de la investigación justifican la intervención, señalando que son las mujeres quienes sufren en mayor cantidad esta violencia sexual, siendo altamente comunes aquellas más sutiles. Este trabajo se apoya de testimonios de gran interés que provocarán una reflexión necesaria sobre la problemática.